

**A HANDBOOK FOR CURRICULUM DEVELOPMENT
AND TEACHER TRAINING
THE LANGUAGE DIMENSION IN ALL SUBJECTS**

<https://www.coe.int/en/web/language-policy/a-handbook-for-curriculum-development-and-teacher-training.-the-language-dimension-in-all-subjects>

**1.- HIZKUNTZA DIMENTSIOA ESKOLAKO ARLO ETA IKASGAI GUZTIETAN: ARAZO
GARRANTZITSUA HEZKUNTZAN KALITATEA ETA EKITATEA LORTZEKO**

Gaur egungo gizarteak gero eta konplexuagoak eta kulturانيتzagoak dira mugikortasunaren eta migrazioaren ondorioz. Egoera honek erronka handia dakar irakas-hizkuntza nagusia, askotan, ez baita ikasle askoren lehen hizkuntza. Hala eta guztiz ere, eskolatzeko-hizkuntzari dagokionez, beste alderdi bat azpimarratu behar da, hain begi-bistakoa ez dena. Ikasleek hizkuntza erabiltzeko gai izan behar dute testuingu sozial eta informaletan komunikatzeaz gain, eskolako edukiak bereganatzeko, ikasten dutenaren esanahia eta inplikazioak elkarrekin eztabaidatzeko, ikasten dutenaz hitz egiteko. Gaitasun horrek "hizkuntza akademikoa" deritzon maila eskatzen du.

"Eskolatzeko hizkuntza"ren beste alderdi bat da hau. Hizkuntza akademikoa ideiak osatzeko, konparatzeko, definitzeko... beharrezkoa den hizkuntza da. Lehen hizkuntza gisa eskolatzeko-hizkuntza duten ikasle asko, batzuetan, ez dira gai eskolako hizkuntza-eskakizunei aurre egiteko, ikasgaietan planteatzen zaizkien edukiei, bereziki. Erronka, sarritan, lexiko berria izan ohi da (esaterako, zientzian: "elektrolisia", "ioia", "neutroia"; literaturan, "ironia", "irudiak", "tragedia"). Baina lexikoa ez da hizkuntza akademikoa menperatzeko ikasleek duten oztopo bakarra.

"Hizkuntza akademikoa menperatzea" esatea orokorregia denez, lau dimentsio bereizgarritan banatu behar da, dituen alderdiak eta ikasleek gainditu behar dituzten erronkak agerrarazteko:

1.- Lehenengo eta oinarrizko bereizketa: ahozko eta idatzizko hizkuntza ez dira berdinak, bereizi egin behar dira. Ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko ezberdintasunaz konturatu ezean, irakurketari eta idazketari ez zaie behar besteko garrantzirik emango arloetan. Izan ere, modu inplizituan onartzen da ikasleek irakurtzeko eta idazteko gaitasunak eskuratu ditzaketela gelako elkarrizketan eta ahozko interakzioan jarduten duten bezala. Hala, ikasleak, gela barruan, gaiari buruzko galderei erantzuteko gai direnez, eduki transferentzia egin ahal dutela uste izaten da eta beraz, testuak ulertzeko edo testu konplexuak idazteko ikasleek ez dutela bestelako laguntzarik behar.

2.- **Testu-generoen garrantzia.** Hizkuntzaren erabilera akademikoari dagokion bigarren alderdi garrantzitsua "generoa" da. Ikasleek ikasgai edo arlo jakin batean zerbait idatzi behar dutenean (adibidez, zientzia esperimendua, nonbaitera egindako bisita gidatu baten ondorioak edo antzezlanaren hizkuntza arloan), gidalerroak behar dituzte genero bakoitzari dagozkion ezaugarriak zehazteko, euren gaitasunak zer espero den jakiteko. Garrantzitsua da zehaztea zer informazio mota eta nola eman behar duten, esate baterako, txosten bat ala hausnarketa pertsonala idatzi behar duten. Testu batzuk genero beraren barruan sartzen dira eta ezaugarri komunak dituzte; beraz, elkartu daitezke. Ezaugarri hau ikasle eta irakasleentzat onuragarria da, ahozko eta idatzizko testuen ekoizpena errazten baitu. Halaber, generoek balio dezake zehazteko zer-nolako laguntza behar duten ikasleek. Genero kontzeptuak lagunduko die ikasleei erabakitzen testuinguruaren arabera zer eratako testua idatzi edo ahoz adieraziko duten.

3.- **"Testua" kontzeptua erabiltzea.** Hizkuntzak mailak ditu: hitz-maila (ortografia eta hiztegia), esaldi-maila (gramatika eta puntuazioa). Baina zentzu osoa hartzen du testu-mailan. Testuak du esanahi bete, berak zehazten du helburua eta testutik ateratzen da ulermen sakona. Beraz, inportantea da testua bere osotasunean hartzea. **Hizkuntza "diskurtso gisa" ikusi behar da.** Hizkuntzaren zenbait alderdiren metaketa gisa barik (adibidez, gramatika arauak), diskurtso gisa aztertu behar da testua. Horrenbestez, jakintza-arloetako irakasleek, esaterako, gaiaren eta hizkuntzaren erabilera hurbildu behar dituzte (*zer lortu nahi du idazleak testu honen bidez? Nola lortzen ditu idazleak aurreikusitako helburuak?*)

4. **Konturatu eta ikusarazi kognizioak eta hizkuntzak harreman estua dutela.** Hizkuntzak funtsezko zeregina du ezagutzaren eraikuntzan; hizkuntza eta pentsamenduaren arteko erlazioak erabateko garrantzia du ikasgai eta arlo guztietan. Ikasleek azaldu, deskribatu, definitu, konparatu, argudiatu, hipotesiak egiten dituzte eta operazio kognitibo horiek lengoaiari esker burutzen dituzte. Jarduera mota horiek funtsezkoak dira eskolako arlo guztiak lantzeko, ikasteko eta ulermena egiaztatzeko. Alabaina, operazio kognitibo horiek hizkuntzaren erabilera jakin bat eskatzen dute: asmoak adierazteko, azaltzeko edo konparazioak edo hipotesiak egiteko edo deskripzioak, hizkuntza baliabide jakinak behar dira.

Laburbilduz...

Irakasle guztiak gauza izan beharko lukete ikasleei laguntzeko jakintza-arlo bakoitzari lotutako hizkuntza-dimentsioaren lanketaren bidez. Horrek esan nahi du irakasleek, neurri batean, idatzizko eta ahozko hizkuntza bereizten lagundu behar dietela ikasleei eta generoak eta funtzio kognitibo-linguistikoen ezaugarriak ezagutzen.

Irakasleek behar adinako arretarik jartzen ez badute hizkuntzaren berariazko dimentsioan eta ikasleei laguntzen ez badiete, huts egingo dute irakaskuntzaren helburu nagusian, hau da, ikasleek landu eta ulertu dutenari buruz hitz egiteko edo idazteko gauza izatea eta ikasitakoa ebaluatzea. Are gehiago, ikasle kopuru handi bati sistemak zor dion orientazio eta ikaskuntza galaraziko zaio.

Ikasle guztiak arrakasta izan dezaten...

Eskolan arrakasta izateko, ikasle guztiak arlo eta ikasgai guztietan jartzen zaizkien hizkuntza eskakizunei aurre egiteko gai izan behar dute. Hizkuntza eskakizun batzuk ohikoak izaten dira

ikasgai guztietan, beste batzuk, berriz, arloari edo ikasgaiari espezifikoki dagozkionak. Alabaina, ikasle batzuk beste batzuk baino hobeto hornituta daude hizkuntza akademikoa eskuratzeko; familia giroari esker, esaterako, etxean hizkuntza egitura konplexuagoak erabiltzen ohituago daudelako. Baina jatorria dela eta desabantailak dituzten ikasleek lagunarteko hizkuntza arruntetik besterako trantsizioa egin behar dute goi mailako pentsamenduak behar dituen hizkuntzaren erabilera sofistikatuena lortzeko. Beste ikasle batzuek behartuta daude ikasgaiak ikastera euren lehen hizkuntza ez den hizkuntza batean. Ikasle askok are desabantaila handiagoak dituzte, irakasteko erabiltzen den hizkuntza euren lehen hizkuntza ez izateaz gain, lehen hizkuntzan ere baliatzen ez dutelako forma landurik...

Ikasle guztien heziketa ez da eskari edo ikuspegi abstraktu bat, baizik eta arloaren edo ikasgaiaren irakaskuntzaren parte, hau da, arloan alfabetizatzea arloaren beraren ezinbesteko helburua da.

Soluzio pedagogiko egokia erronkei aurre egitean datza, eta laguntzak ematea. Hizkuntzaren irakaskuntza arloetan gai jakintzat ematen bada edo hizkuntza arlora soilik mugatu, desberdintasunak eta desabantailak iraun egingo dute.

2. KAPITULUA

HIZKUNTZAREN EGINKIZUNA EZAGUTZAREN ERAIKUNTZAN ETA APLIKAZIOAN

1. kapituluan adierazi den bezala, adituen eta administrazioen artean kezka handia dago gero eta gazte gehiagok ez dutela behar adinako hizkuntza-mailarik erakusten ezagutzaren gizarte demokratiko modernoetan parte hartzeko. Ezagutzaren esparru anitzetan hizkuntzaren ezagutza erakustea garrantzitsua da eskola arrakasta eta gizarteratzea lortzeko.

Gaur egungo gizartearen kultur erronkei erantzuteko, ikastetxe guztiek hizkuntzaren irakaskuntzari erreparatu beharko liokete, horren inguruan sakon hausnartu eta modu koordinatuan lan egin irakurketan eta idazketan oinarriturik; eta, beraz, ikasgai eta arlo bakoitzak behar duen hizkuntza konpetentzia garatu arlo eta ikasgaien bitartez, arlo eta ikasgai horietako bakoitzaren baitan.

Hizkuntza trebetasunak arloak eta ikasgaiak garatzeko beharrezkoak diren abileziak dira, hala nola azalpen testuak irakurtzea eta ulertzea, laburpenak egitea, edo galderei erantzutea edo emaitzak jende aurrean aurkeztea. Eskola-saio guztietan egin ohi diren atazak dira eta lotuta daude arloetako edukiekin; izan ere, hizkuntzaren dimentsioa hizkuntza arloan bezain garrantzitsua da gainontzeko arloetan. Eskola-hizkuntza garatzeko dimentsio hori bigarren zutabea da Europako Kontseiluak behin eta berriz adierazi eta frogatu duen bezala.

Ezagutza eraikitzea, hainbat hizkuntza-jardueraren bidez, ez da modu isolatuan garatzen, norbanakoa bakarrik, ingurumenaren eraginik gabe. Ezagutza garatzea prozesu soziala da, eta ikasleak, norbanako gisa irakaslearekin eta kideekin elkarreraginean aritu behar dira, horrela

ikasteko modu propioak, espezifikoak eta ikasgelako diskurtsoen errealitateak moldatuko dituzte eta esanahia eraikiko.

Bestalde, arloetako gaien izaera konplexua ez da terminologia espezializatura mugatzen. "genero" kontzeptuak zeresan garrantzitsua du, arloetan eta ikasgaietan baliatzen diren testuak praktika-komunitateek eratuak baitira. Horrez gain, funtzio kognitibo-linguistikoak testu generoetan aplikatzen dira eta neurri batean, irakaskuntza esplizituak behar dituzte. Baliabide kognitibo-linguistikoak deskribatu daitezke curriculumean zehar, baina gai zientifiko, artistiko eta gizarte zientzietako orok bere genero bereizgarriak ditu.

Gaur egungo hizkuntza akademikoaren erabilera hizkuntzaren erabilera informal eta sozialaren guztiz bestelakoa da. Desberdintasuna azpimarratzeko, hona hemen "hizkuntza gaitasun formalaren edo akademikoaren" zenbait ezaugarri.

Hizkuntzaren erabilera akademikoaren ezaugarriak eta funtzioak

Hizkuntza akademikoaren ezaugarriak	Funtzio nagusiak
Hizkuntza arruntak ez bezala, esaldi konplexuagoak eta luzeagoak egitura inbertsonalak eta egitura pasiboak, termino abstraktuak, nominalizazioak, hitz konposatuak, hizkera figuratibo berezia, esamoldeak eta esaldi zehatzak edo lexiko berezia (adibidez "ikuspegia"), adierazpenen zehaztasuna, argitasuna eta erredundantzia txikia, kondentsatutako testuak eta mezu konplexuak...	Egintza konplexuak, testuinguruak eta argudioak komunikatzea, goi mailako pentsamendua eta abstrakzioa eta kontzeptuak egituratzea, ideien koherentzia ezartzea, inplikazio pertsonala saihestea, urrutiko "hartzaile/entzuleei ulermena erraztea, argudio-frogak egiaztapenekin laguntzea, esanahiaren ñabardurak egitea, ideiak bultzatuz edo estaliz /baztertuz

Adituek hizkuntza akademikoaren lau alderdi zehatz hauek bereizten dituzte:

- 1.- berariazko hiztegia
- 2.- lexiko akademiko orokorra
- 3.- gramatika egiturak
- 4.- funtzio kognitibo-linguistikoak

Funtzio horiek esperientziaren eta ezagutzaren eraikuntzaren logika islatzen dute eta, beraz, kognizioaren oinarriko ereduak. Zentzu horretan, funtzio horiek kognitiboak eta linguistikoak dira eta pentsatzeko trebetasunetatik gertu daude.

Funtzio horiek adierazten dute, aldi berean, zein den adimenaren asmoa edo jarduera espezifikoa

eta hitzak elkartzen dituzte. Hauek dira funtzio kognitibo-linguistikoak

1. izendatzea / definitzea;
2. deskribatzea / alderatua;
3. kontatzea / narratzea;
4. azaltzea / erakustea;
5. antzematea/ hipotesiak egitea;
6. baloratzea/ ebaluatzea
7. argudiatzea/ arrazoitzea
8. kokatzea / jarrera hartzea, negoziatzea, modelatzea

Arlo eta ikasgai bakoitzaren konpetentzia garatzeko parte hartzen duten hizkuntz gaitasunak honako hauek dira:

- Gaiaren ezagutza prozesatzea eta eskuratzea (entzutezko eta irakurtzeko jardueren bidez) eta arloari eta ikasgaiari buruzko gaietako testuetan sakontzea.
- Ezagutzaren elementu berrien esanahia negoziatzea dagoeneko esistitzen diren beste batzuekin konparatuta;
- Gogoeta egitea ikusmolde berri bat nola garatu eta lortu den ezagutzaren baliagarritasuna eta erabilera kontuan hartzea, testuinguru berrietara aplikatuz;
- eztabaida sozio-zientifikoak eta diskurtsoak prestatzea eta haietan parte hartzea eskolatik kanpo;
- arau edo konbentzioen esanahia eta esparrua kritikoki zalantzan jartzea, eskuratutako prozesua, ezagutza eta trebetasunak orokortzea (norberaren hezkuntza orokorraren zati gisa)

Ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitateek jakin behar dute eta onartu hizkuntzaren garrantzia ezagutzaren eraikuntzan eta ezagutzaren aplikazioan, irakasgaiaren berezitasunak ikasteko. Hizkuntza-gaitasunak esplizituki adierazi eta irakatsi behar dira, eta maila bakoitzean, adin-taldeekin edo hezkuntza-esparruekin erlazionaturiko curriculumean. Era berean, esplizituki irakatsi behar da ezagutzaren eraikuntza prozesuaren zati gisa arlo eta ikasgai guztietan

Azpimarratu behar da, gaiaren berariazko terminologia bideratzea ez dela nahikoa. Horrez gain, ikasgelako jardueretan, testu generoetan, funtzio kognitibo eta linguistikoetan eta irakaskuntza-ikaskuntzan hizkuntza errepertorioak deskribatzeko prozedurak identifikatu behar dira.

3. KAPITULUA

IKASGELAKO KOMUNIKAZIO ERAK ETA ARLOAREN EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK ESKURATZEA

Gelako jardueretan proposatzen diren testu generoak oso estrategikoak izan daitezke arloari lotutako jakintza eskuratzeko. Zenbait generoren lanketan irakasleek arreta linguistiko handia jarri behar dute (hau da, adierazpena zaindu behar dute bere forma guztietan).

Ikasgelan erabiltzen diren komunikazio-moduak, batez ere, ahozkoak, nahiko ezegonkorak dira eta horregatik erraz aldatzen dira modu batetik bestera. Kantitateari dagokionez, forma horiek ahozkoak dira, baina ebaluazioak normalean idatziak izaten dira, ezagutza azaldu eta eztabaidatzeko behar diren formak direnez gero. Hortik dator idatzizko formen garrantzia

4. KAPITULUA

ADIERAZPEN AKADEMIKOA ESKURATZEN

Hizkuntza akademikoaren hainbat adierazpen- forma erabiltzen ikasteak haxe eskatzen du: lehenik eta behin, hezkuntzako maila guztietan irakasleei jakinaraztea zeintzuk diren hizkuntzari lotutako jardueren onurak, honako alderi hauei erreparaturik (mikro curriculum-mailan):

- erregistro soziolinguistiko formala erabiltzea (adibidez, ahozko aurkezpenetan). Hala ere, arloetako irakasle batzuek ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen eta lagunarteko hizkuntza-erabileraren alde egiten dute (eurek ere maiz erabiltzen dutena). Ikasle batzuek erregistro familiarreko adierazpideak baztertu egiten dituzte beren identitatearen parte ez izanaren kariaz.
- arloaren berariazko terminologia egoki erabiltzea.
- Ikasleei laguntzea beren azalpenak eta bat bateko arrazoibideak adierazten;
- zehaztasun gramatikala eta ortografikoa

6. KAPITULUA

ESKOLATZE HIZKUNTZA LANTZEKO JARRAIBIDEAK ERAIKITZEN LEHEN HEZKUNTZAN

Lehen Hezkuntzan, hizkuntza-dimentsioaren funtsezko elementua hau da: eskolatze-fase honetan, nahitaez, ikasleak komunikazio arrunteko diskurtsotik, hau da, beraiengan zentratutako diskurtsotik, ni_hemen-eta-gaur, atera eta arloen lanketarako beharrezkoak diren eragiketa kognitibo funtzionaletara eraman behar ditugu. Hau da, lehen pertsonatik hirugarren pertsona narratibora aldatzea.

Argi dago narrazioek, pixkanaka, aukera ematen dutela haurrak “ni_hemen_orain” bat-bateko eta unean uneko egoeratik hirugarren pertsonaren erabilerara mugitzeko.

Testuinguru horretan, testu literarioek hizkuntza trebetasunak garatzeko egiteko garrantzitsua dute. Estrategiaren garapena sustatzen dute, esanahia ulertzeko eta narrazioaren ezaugarriak eta elementu kulturalak jokoan jartzeko. Azkenean, aukera ematen diete ikasleei narrazioaren beraren egitura bereganatzeko, oro har, ikasteko prozesua bideratuz.

Narrazioetan hasita, ikasleek, apurka-apurka beste testu batzuetara jo beharko lukete hala nola azalpenetara eta diskurtso objektibotara.

Berbalizazioaren Eginkizuna

Galderak, aurreustekak, iritziak, suposizioak, haurren teoria propioak esploratzea, desadostasunaren arrazoiak identifikatzea, denak baliagarriak dira, irakaslearen gidaritzapean, begi-bistakotik iritziak alderatu eta konparazioak egiteko trantsizioan. Irakasleek laguntza eman dezakete marrazki, grafikoak, eskemak edo ereduak emanez, abstrakziorako trantsizioari lagunduz. Idazketa, halaber, garrantzitsua da eta egiteko esanguratsua dauka, batez ere ulermen trebetasunak garatzeko, baina ahozko lana ez da ahaztu behar, ikaslearen edo ikasleen arteko elkarreraginean zentratua.

Ezinbestekoa da ahozko elkartrukeak eta eragiketa kognitibo-linguistikoak (azaltzea, deskribatzea, narratzea, iritzia eman eta justifikatzea, etab.) eskolako gaiei buruz garatzea. Ez da egokia denek partekatzen ez dituzten eskolaz kanpoko esperientzien inguruan jardutea.

Ikuspegiak, prozesu baten faseak edo ezagutzaren laburpenak hitzez adierazteak irakasleari aukera ematen dio ikasteko prozesuetan ikasle guztiek modu kolektiboan pentsatzeko, gaitasun metakognitiboaren garapena sustatuz.

Aipatu beharra dago, halaber, taldeko ahozko aurkezpen bat egiteak ez duela soilik hizkuntza gaitasunaren garapena ahalbidetzen, haurrentzako autoestimua ere bultzatzen duela, lortutako emaitzak euren kideei aurkezteko aukera duten neurrian. Era honetako jarduerak idatzizko materialarekin batera proposatu beharko lirake eskuratutako ezagutzak modu argian azaltzeko. Horrela, ikasleek eginiko laburpen horien bidez, gaia errazago eskuratu eta memorizatu ahal izango dute.

Halaber, aurreikusitako testuen ezaugarriak eta kontuan hartuko diren alderdiak, hala nola funtzioa, forma ezaugarriak, lexikoa eta sintaxia ezaugarritu behar dira.

Txostenaren lekua

Ezagutza eraikitzeke edo azaltzeko erabiltzen diren ezagutza-prozesuak hitzez adierazteko hala nola kalkulatzeko, sailkatzea, alderatzea, deskribatzea / irudikatzea eta dedukzioa egitea baliabide linguistiko egokiak identifikatu behar dira.

Txostena genero akademiko goiztiarra besterik ez da, eskolan erabili ohi dena eta oraindik espezializazioa falta duena. Txostenak idazten ikastea da, hala ere, ezagutza eraikitzeke eta erabiltzeko behar den gaitasun kognitibo-linguistikoaren fase garrantzitsua.

Idazketaren lekua argi dago arlo guztietan. Ikasleei ematen zaien parafraseatzeko denbora edo beren ikerketak idazteko eta egindako lanaren prozesuak eta erroreaz gogoeta egiteko edo memorizatu behar diren gauzak idatziz ezartzeko, oso denbora baliagarria da hizkuntza lantzeko.

Testuinguru honetan txostenak nola idatzi behar diren jakiteak leku garrantzitsua hartzen du eta objektibizazio prozesuetarako ezinbestekoa da. Testu mota horri esker, esate baterako, testuingurua zehaztu egin behar dute, deskribatu egin behar dituzte (itxura eta prozesua), harremanak ezarri behar dituzte (baliabideak, amaiera), neurketak, zalantzak adierazi behar dituzte, orokortzeak, konparazioak deskripzioak eta sailkapenak Genero honek funtsean eragiketa kognitibo eta linguistikoak biltzen ditu, hau da, ezagutza prozesatu edo ezagutzera aktibatutako prozesu kognitiboak

Hizkuntzaren inguruko lanaren zeharkako izaera

Ez dago gelako jarduerarik hitz egin beharra ez duenik duenik eta testuak irakurtzea edo sortzea helburu ez duenik. Jarduera bakoitzak aukera ematen du ahozko eta idatzizko trebetasunak lantzeko, eta, beraz, hizkuntza beraren alderdi zehatzetan sakontzeko (testu baten egitura, antolatzaileak, konektoreak, etab.).

Arreta berezia eman behar zaio jarduera "akademiko" etan ere eta beraz, ikasleei proposatu idazlan pertsonalak edo laburpenak, idatziak edo ahozkoak, egiteko